



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Tokiko Gobernu Batzak
Junta de Gobierno Local

Akta 2018ko Uztailaren 9a
Acta 9 de Julio de 2018

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA/LUGAR: SALA COMISIONES DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

EGUNA / FECHA: 2018/07/09

HASIERA / INICIO: 17:00etan

BERTARATUAK / ASISTENTES:

PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ/PNV):

Doña Aitziber Irigoras Alberdi (EAJ/PNV), Alkate andrea

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):

1ª Teniente de Alcalde, Doña Pilar Ríos Ramos andrea PSE-EE (PSOE)

2º Teniente de Alcalde, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea (EAJ/PNV)

3º Teniente de Alcalde, Don Iker Oveja Sobrón jauna (EAJ/PNV)

4ª Teniente de Alcalde, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea (EAJ/PNV)

EZIN ETORRIA ADIERAZTEN DUTE/JUSTIFICAN SU AUSENCIA

5º Teniente de Alcalde, Don Humberto Jaio Sagasti jauna (EAJ/PNV)

6º Teniente de Alcalde, Don Jose Mari Andrés Ibañez de Garaio jauna (EAJ/PNV)

IDAZKARIA/ SECRETARIO

Don Ramon Sorarrain Tolosa jauna (Idazkari Nagusia/Secretario General)

IZAERA / NATURALEZA: OHIKOA / ORDINARIA

DEIALDIA / CONVOCATORIA: LEHENA / PRIMERA

Bi mila eta hemezortziko uztailaren 9an, arratsaldeko 17:00etan eta Aitziber Irigoras Alberdi (EAJ/PNV) alkate Andrea buru delarik, Udaletxeko Batzorde Gelan Tokiko Gobernu Batzordea osatzen duten zinegotziak bildu dira.

Presidentziak bilkurari hasiera eman dio eta deialdia osatzen duten gaiak aztertu dira. Gaiak honako hauek dira:

BAT.- ERABAKI PLATAFORMAREN AGERRALDIA

2018ko uztailaren 9ko, 10:00etan, plataformak bidalitako e posta bidez jakinarazi zen ezinezkoa zitzaiela Tokiko Gobernu Batzordera bertaratzea.

A 9 de julio de 2018, siendo las 17:00 horas, y bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa, Doña Aitziber Irigoras Alberdi (EAJ/PNV), se reúnen en la Sala de Comisiones de la Casa Consistorial los/as Concejales/as miembros de la Junta de Gobierno Local.

Abierta la sesión por la Presidenta, se pasó a tratar de los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y, que son los siguientes:

UNO.- COMPARECENCIA DE LA PLATAFORMA ERABAKI

Mediante email remitido a las 10:00 horas del día 9 de julio de 2018 por arte pde la plataforma se pone de manifiesto la imposibilidad de asistir a la Junta de Gobierno Local.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Tokiko Gobernu Batzak
Junta de Gobierno Local

Akta 2018ko Uztailaren 9a
Acta 9 de Julio de 2018

**BI.- AURREKO AKTA-ZIRRIBORROA
IRAKURTZEA ETA, BIDEZKOA BALITZ,
ONARTZEA**

Aho batez onartzen da 2018ko ekainaren 18ko akta.

HIRU.- GAI INTERESDUNEN BERRI EMATEA

Ez dira ematen.

**LAU.- DURANGOKO UDALEKO KARGU
PUBLIKOENTZAT GENERO BERDINTASUN
ARLOKO JOKABIDE ETA JARRERA ONEN
KODEAREN ONESPENA, HORRELA
BADAGOKIO**

Tokiko Gobernu Batzordeak, ahobatez, oneritzia emate dio Durangoko Udaleko kargu publikoentzat Genero berdintasun arloko jokabide eta jarrera onen Kodeari. Hitzez hitz honako hau dio:

**"GENERO BERDINTASUN ARLOKO JOKABIDE ETA
JARRERA ONEN KODEA DURANGOKO UDALEKO KARGU
PUBLIKOENTZAT**

1. Hitzaurrea

Jokabide eta jarrera onen barne kodeak gai baten inguruan jarrera argi bat erakusteko tresnak izaten dira. Kasu honetan, udalak, eta, bereziki, bere ordezkari politikoek, kode hau izango dute helburu hauek lortzeko:

- a) Gure erakundean genero berdintasuna lortzea.
- b) Durangoko Udala indarkeria matxista bako espazio bihurtzea.
- c) Lan egitea erakundea osatzen duten pertsonak berdintasun arloan aldaketa sozialerako eragile izan daitezen; jokabide profesionaletan, zibikoetan eta pertsonaletan eragitea, inguruan genero berdintasuna lortzeko.
- d) Lege enuntziatuak orokorrak eta anbiguoak izaten dira. Haien aurrean, jokabide eta jarrera onen kodeak zera egiten du:
 1. Berdintasun arloan jardueraren arlo desberdinetan egin beharreko ekinbideak zehazten ditu eta argibide argiak ematen ditu. Eta, gainera;

**DOS.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI
PROCEDE, DEL BORRADOR DEL ACTA
ANTERIOR.**

Se aprueba, por unanimidad, el acta correspondiente a las sesiones de 18 de junio de 2018.

**TRES.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE
INTERÉS.**

No se producen.

**CUATRO.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL
CÓDIGO DE CONDUCTA Y BUENAS
PRÁCTICAS DE CARGOS PÚBLICOS DEL
AYUNTAMIENTO DE DURANGO EN MATERIA
DE IGUALDAD DE GÉNERO.**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, informa favorablemente el Código de conducta y buenas prácticas de cargos públicos del Ayuntamiento de Durango en materia de Igualdad de Género, cuyo tenor literal es el siguiente:

**"CÓDIGO DE CONDUCTA Y BUENAS PRÁCTICA DE
CARGOS PÚBLICOS DEL AYUNTAMIENTO DE DURANGO
EN MATERIA DE IGUALDAD DE GÉNERO**

1. Preámbulo y legislación aplicable

Un Código interno de Conducta y Buenas Prácticas supone una herramienta mediante la cual, esta vez de manera activa, el Ayuntamiento y, en especial, sus representantes políticos, se posicionan claramente a fin de:

- a. Garantizar la igualdad de género en nuestra Institución.
- b. Conseguir que el Ayuntamiento de Durango sea un espacio libre de violencia machista.
- c. Posibilitar que las personas que componen la institución sean agentes de cambio social en esta materia, influyendo en la modificación de comportamientos profesionales, cívicos, familiares y personales para alcanzar la igualdad de género en su entorno.
- d. Además, frente a los enunciados legislativos, necesariamente genéricos cuando no ambiguos, el Código de Conducta y Buenas Prácticas:
 1. Concreta la actuación en materia de igualdad de género en sus diversos ámbitos de actuación dando pautas claras de actuación. Y, además,



2. Zehaztu egiten ditu emakume eta gizonen arteko harremanetan zein jokabide diren onartezinak gure instituzioan.

Durangoko Udalak irmoki dio bere esparruan ez duela ezelako indarkeria motarik onartuko, bereziki indarkeria matxistarik; eta udal arloan eman litezkeen indarkeriazko edozein adierazpen prebenitzeko konpromisoa hartzen du jokabide kode honen bidez. Izan ere, barne kode honen helburua jokabide horiek saihesteko neurri zehatzak hartzea da, eta horretarako udalbatza osoaren formazioa, informazioa eta sentsibilizazioa landuko dira.

Kode hau ez da adierazpen huts bat, eragin errealik ez duen kode bat; kodea betetzen ez dela egiaztatuz gero, jarraipena egiteko barne sistema bat aktibatzea aurreikusi da. Gertakizunak larriak izan direla ikusiz gero edo horretarako gomendioak egonez gero, ardura politikoagatik dimisioa aurkeztu beharrean egongo dira arduradun politikoak.

2. Durangoko Udaleko kargu publikoen genero berdintasun arloko jokabide eta jarrera onei buruzko kodearen objektua

Kode honen helburua hau da: udala osatzen dugun pertsonen jokabideen printzipioak eta oinarriko arauak zehaztea genero berdintasun arloan. Horrela, udalaren helburuak modu egokian bete ahal izango ditugu eta herritarren nahiei erantzun ahal izango diegu, legez ezarrita dagoen testuinguruaren marko osagarri baten.

Kode honen eraginpean dauden pertsonen bertan ezarritako printzipio eta helburuei jarraituz gero, indarrean dagoen araudia beteko dute. Izan ere, kodean jasotakoa beteta, lege eta araudietan kargu publikoetarako aurreikusitako jokabideak indartu egingo dira.

3. Aplikaziorako eremu subjektiboa

Kode honetan barneratutako arauak Durangoko Udalaren udalbatza osatzen duten pertsonen bideratutakoak dira.

Kargu publikoek aipatutako balio eta printzipioen arabera bete beharko dituzte euren funtzioak. Horrelaxe jokatuko dute jokabide indibidualetan zein kide diren erakundearen ordezkari legez herritarrekin dituzten harremanetan. Jokabide horiek datozen artikuluetan daude garatuta.

4. Jokabide eta jarrera onei buruzko kodearen helburuak

1. Durangoko Udalaren oinarri diren balioak zabaltzea; bereziki, emakume eta gizonen arteko berdintasuna eta bazterkeria eza.
2. Tresna bat izatea udaleko kideei ezagutarazteko zeintzuk diren genero berdintasun arloan erakundeak desiragarritzat eta desagokitzat dituen jokabideak.

2. Explicita las conductas que no son tolerables en la relación entre mujeres y hombres en nuestra institución.

El Ayuntamiento de Durango afirma tajantemente que no tolerará ningún tipo de violencia, en especial la violencia machista en su ámbito y se compromete a prevenir cualquier tipo de manifestación de esta índole en el espacio municipal por medio del presente Código de conducta, cuyo objetivo es establecer una serie de medidas que se apliquen para prevenir este tipo de actuaciones a través de la formación, la información y la sensibilización de la toda la corporación.

No se trata de un código meramente declarativo o sin efectos reales, ya que, en caso de acreditarse un incumplimiento del mismo se prevé la activación de un sistema interno de seguimiento que puede terminar con la necesidad de presentación de la dimisión por responsabilidad política en el puesto que ocupe, si la gravedad de los hechos así lo requiere, o con la formulación de recomendaciones.

2. Objeto del código de conducta y buenas prácticas de los cargos públicos del ayuntamiento de durango en materia de igualdad de género

Es objeto de este Código determinar los principios y reglas básicas de conducta en materia de igualdad de género que han de informar las actuaciones del personal incluido en el ámbito subjetivo de aplicación, a fin de cumplir de manera adecuada con los objetivos del ayuntamiento y de satisfacer las aspiraciones de la ciudadanía en un marco adicional a lo legalmente establecido.

El cumplimiento del presente Código vendrá a reforzar las previsiones legales y normativas a las que se encuentran sujetas las personas que hayan de observarlo, de forma que el cumplimiento de la normativa vigente lo harán atendiendo a los principios y objetivos que inspiran el propio Código.


3. Ámbito subjetivo de aplicación

Las normas contenidas en este Código son exigibles a quienes integren la corporación del Ayuntamiento de Durango.

Deberán desempeñar sus funciones conforme a los citados valores y principios, tanto en su conducta individual como en su proyección en la institución u organización de la que formen parte y respecto a la ciudadanía, tal como se desarrollan en los artículos siguientes

4. Objetivos del código de conducta y buenas prácticas

1. Difundir los valores sobre los que se asienta el Ayuntamiento de Durango, en particular, los la igualdad de mujeres y hombres y la no discriminación.
2. Poner a disposición de la institución una herramienta que permita conocer a sus integrantes los comportamientos deseables y los que la institución considera inapropiados en materia de igualdad de género.



Idazkaritza
Secretaría

3. Gure gizarteari ikusaraztea zein beharrezkoa den genero berdintasuna lehen mailako balio gisa izatea gure jardunean, eta transmititzea gure betebeharra dela indarkeria matxistaren edozein adierazpide arbuizatzea; gizarterako gura ditugun balioetan eredu izan behar da gure erakundea.
4. Sistema patriarkala aldatzeko lan egitea, sistema honek sustatzen dituen rola eta genero estereotipoak erauzteko. Horretarako, udaleko langileei eta herritarrei zuzendutako jarduera eta estrategiak martxan ipintzea.

5. Durangoko Udala berdintasun gunea izango da, indarkeria matxista bakoa

Emakumeen kontrako indarkeria kontzeptuaren baitan emakumeen kontrako indarkeriazko ekintza guztiak sartzen dira. Ekintza horien ondorioz emakumeek kalte fisikoak, sexualak edo psikologikoak izan ditzakete; eta indarkeria ekintza da baita ekintza horiek egiteko mehatxua, zerbait egitera derrigortzea edo askatasuna mugatzea, bai arlo publikoan eta baita pribatuan ere.

Kode hau aplikagarri zaien pertsona guztiek jokabide eta jarrera hauek izango dituzte:

1. Pertsonak errespetuz eta jarrera egokiz tratatuko dituzte, euren ideiak eta ekarpenak kontuan hartuta, sexu edo genero bereizkeriarik egin barik, eta emakume eta gizonen duintasuna eta intimitatea zaindiz.

2. Udalbatzeko kideekin eta udaleko langileekin izango dituzten harremanetan saihestuko egingo dute sexu arrazoiengatik bereizkeriarik egitea; gizonetikiko onargarriak ez diren jokabideak ez dira emakumeetikiko onargarriak izango, eta alderantziz.

3. Emakumeei eta gizonen emandako tratua berdina izatea bermatuko dute.

4. Emakumeek eta gizonen indarkeria sexual edo sexu arrazoiak indarkeriaren objektu ez izateko duten eskubidea zaindako dute (indarkeria hitzezkoa, fisikoa zein psikologikoa). Besteak beste, jokabide hauek hartzen dira jazarpen sexualtzat:

- Eraso fisikoak.
- Sexu-egintzak eskatzea, tartean txantaiarekin: lehentasunezko tratua emango delako promesa esplizitu edo inplizitua; halako jarduerarik egin gura ezean mehatxuak egitea, batez ere, nagusikeria erabiliz harreman interpersoneletan.
- Ezkutuan pertsonak behatzea toki pribatuetan daudenean; komunetan edo aldageletan, esaterako.
- Beharrezkoa ez den kontaktu fisikoa.
- Izaera sexistadun irudiak edo errepresentazio grafikoak izatea lantokian edo lanerako erramintetan.

3. Visibilizar ante la sociedad que nos rodea la idoneidad de incorporar la igualdad de género como valor de primer orden y la necesidad de rechazar cualquier manifestación de violencia machista, como parte de nuestra obligación de ser institución líder en los valores socialmente deseables.

4. Favorecer el cambio del sistema patriarcal para erradicar los roles y estereotipos de género que este sistema fomenta, poniendo en marcha actuaciones y estrategias dirigidas tanto al personal del Ayuntamiento de Durango como a la ciudadanía.

5. El Ayuntamiento de Durango como espacio de igualdad y libre de violencia machista.

Constituye Violencia contra las mujeres todo acto de violencia contra las mujeres, definida ésta como cualquier acto violento por razón del sexo que resulte, o pueda resultar, en daño físico, sexual o psicológico o en el sufrimiento de la mujer, incluyendo las amenazas de realizar tales actos, la coacción o la privación arbitraria de libertad que se produzcan en el ámbito público o privado.

Todas las personas a las que les es de aplicación el presente código:


1. Tendrán una actitud respetuosa y correcta en el trato hacia las personas, tomando en consideración sus ideas y aportaciones sin distinción de sexo y/o género y salvaguardando la dignidad e intimidad de mujeres y hombres.

2. Evitarán las diferencias por razón de sexo en las relaciones con las personas que integren la corporación y la plantilla de la institución, es decir, ningún comportamiento no deseable hacia los hombres ha de aplicarse a las mujeres, y viceversa.

3. Garantizarán un trato homogéneo entre mujeres y hombres.

4. Deberán salvaguardar el derecho de mujeres y hombres a no ser objeto de ningún tipo de violencia sexual o por razón de sexo (bien sea verbal, física o psicológica). Constituyen acoso sexual, entre otros, los siguientes comportamientos:

- Agresiones físicas.
- Demandas de favores sexuales acompañados o no de promesas explícitas o implícitas de trato preferencial o de amenazas en caso de no acceder a este requerimiento, especialmente en concurrencia con el abuso de poder en las relaciones interpersonales.
- Observación clandestina de personas en lugares reservados, como pueden ser los servicios y baños o los vestuarios.
- El contacto físico innecesario.
- Uso de imágenes o representaciones gráficas de carácter sexista en los lugares y/o herramientas de trabajo.



Horiez gain, honako jokabide hauek oinarri sexista dute; eta, beraz, sexu jazarpen osagarritzat hartzen dira:

- Deskalifikazio pertsonalak.
- Besteek egindako lanarekiko deskalifikazioak, arrazoi objektiboetan oinarritu bakoak.
- Itxura fisikoari, ideologiari edo sexu eta genero indentitate orientazioari buruzko komentario iraingarriak.
- Bazterketa, gutxiespena edo hierarkiarekin eta beste langileekin komunikatzeko debekua.
- Agindu iraingarriak ematea.
- Zainketa jokabide muturrekoak eta jarraiak.
- Indarkeria, hitzekoa, keinuzkoa edo fisikoa.

5. Bereziki garrantzitsua da arreta jartzea bitarteko elektronikoen bidezko -sare sozialak, posta elektronikoa, WhatsApp, etab.- jokabideetan, jazarpenezko jarrerak saihestu ahal izateko.

6. Erakundeko kideek halako jarrerak ikusten badituzte, organo arduradunei jakinarazi beharko diete, horrela, kasu hauetarako Durangoko Udalak duen protokoloa martxan jartzeko. Dena dela, salatutako pertsonaren errugabetasun presuntzioa babestuko da.

7. Bereziki, emakume eta gizonen bazterkeria ekintza guztiak zuzendu beharko dira, eta baita giroan mina, etsaitasuna, beldurra, umilazioa edo nagusikeria sortu ditzaketen ekintzak ere.

6. Durangoko Udalaren genero berdintasun arloko batzorde etikoa.

- Durangoko Udalean genero berdintasun arloko batzorde etikoa sortuko da.
- Batzorde horretako kideak hauek izango dira:
 - Alkatea, edo berak eskuordetutako pertsona.
 - Durangoko Udalaren Berdintasun saileko arduraduna.
 - Genero berdintasunarekin eta gatazken konponketarekin lotutako esperientzia, gaitasuna eta prestigio profesional kontrastatua duten hiru pertsona, Berdintasun sailak proposasutakoak eta alkateak izendatuak.
 - Durangoko Udaleko langile bat, idazkari lanetan ibiliko dena, ahotsarekin baina boto-eskubide barik.

Asimismo, constituyen conductas que pueden tener una base sexista, y por tanto consideradas constitutivas de acoso por razón de sexo, entre otras, las siguientes:

- Las descalificaciones personales.
- Las descalificaciones sobre el trabajo de las personas que no estén fundamentadas en razones objetivas.
- Los comentarios vejatorios sobre el aspecto físico, la ideología o la orientación sexual e identidad de género.
- El aislamiento y rechazo o prohibición de la comunicación con la jerarquía o con el resto del personal.
- Dar órdenes vejatorias.
- Las actitudes que comporten vigilancia extrema y continua.
- La violencia verbal, gestual o física.


5. Especialmente importante es poner atención, para evitarlos, a los comportamientos de acoso por medios electrónicos: Redes sociales, correo electrónico, WhatsApp, etc.

6. Las personas de la institución que observen los mencionados comportamientos deberán de ponerlos en conocimiento de los órganos responsables, para, si procede, activar el protocolo del Ayuntamiento de Durango para estos casos (sin perjuicio de la presunción de inocencia de la persona denunciada).

7. En particular habrá que corregir todo acto de discriminación hacia mujeres y hombres, así como las acciones que pudieran crear un entorno ofensivo, hostil, intimidatorio, humillante o de abuso de poder.

6. Comisión de ética en materia de igualdad de género del Ayuntamiento de Durango.

- Se crea la Comisión de ética en materia de igualdad de género del Ayuntamiento de Durango.
- La Comisión se compondrá de las siguientes personas:
 - La Alcaldía, o persona en quien delegue.
 - La persona responsable del Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Durango.
 - Tres personas de experiencia, competencia y prestigio profesional contrastado en materias relacionadas con la igualdad de género y resolución de conflictos, nombradas por la Alcaldía a propuesta del Área de Igualdad.
 - Un/a funcionario/a del Ayuntamiento de Durango que actuará como secretario o secretaria con voz, pero sin voto.



Kode honen eraginpean dagoen kargu publikoren batek, indarkeria matxistarekin zerikusia duen zigor prozeduraren baten egonez gero -instrukzio fasean bada ere-, dimisioa aurkeztu beharko du erantzukizun politikoagatik.

c. Hauek izango dira Batzorde Etikoaren funtzioak:

- Kode honen inguruko oharak, kontsultak eta iradokizunak jasoko ditu, eta bertan egingo dira kodea aldatzeko proposamenak martxan jartzeko pausoak.
- Kodea eraginkortasunez abiatzeko lana egingo du, horretarako beharrezko izango diren ekintza eta neurriekin.
- Kodeak beharrezko izan litzakeen aldaketak proposatuko dira batzorde honetan, eta organo eskudunera igorriko dira, han aintzat hartuak izan daitezzen.
- Kodearen eraginpean dauden pertsonen zalantzak argitzea, eta baita beste edonondik kodearen aplikazioari buruz helarazitakoak ere.
- Kodean barneratutako balioen balizko urraketen inguruko kexak edo salaketak jasotzea, eta horien inguruko tramitea hastea. Horrelako kasuetan, interesatuari entzunaldia eskaintzea bermatuko da.
- Kodearen eraginpean dauden pertsonen gomendioak ematea, eta baita sail eta entitateei ere.
- Urtero batzordeak txostena idatziko du, kodea beteko den ala ez jakiteko gainbegiratze-lanen ondorioekin.

d. Batzordea, gutxienez, urtean behin batuko da. Deialdia idazkari lana egingo duen pertsonak egingo du, presidentearen agindua jaso eta gero.

e. Dena dela, beharrezko ikusiko diren beste ezohiko batzar egin ahalko dira, landu beharreko gaien nolakotasunak eta urgentziak hala eskatzen badute. Batzarretara bertaratuta edo bitarteko telematikoko bidez egin ahalko dira batzarrek.

Kargu publikoen jokabideen jarraipena egingo da, kodea betetzen dela ziurtatzeko; eta urtero gainbegiratze horren txostena idatziko da. Txosten horretan gomendioak idatz litezke, eta Tokiko Gobernu Batzordeari igorriko zaio testua. Txostenean batutako ondorio eta gomendioak publikoak izango dira.

f. Batzordekideek isilpean gorde beharko dute euren funtzioak bete dituzten artean jasotako informazioa. Bereziki, ezingo dute ezer esan batzordean aztertu diren gertakariei buruz, ikerketen edukiez, hartu diren erabakiez eta ezingo dute inon eman izaera pertsonaleko datuak dituen informaziorik. Gainera, ez

Cualquier persona a la que le es de aplicación este código que esté incurso en un procedimiento penal que tenga que ver con la violencia machista, incluso en fase de instrucción, deberá presentar la dimisión por responsabilidad política.

c. Las funciones de la Comisión de Ética Pública serán las siguientes:


- Órgano competente para recibir las observaciones, consultas y sugerencias, así como el procedimiento para llevar a cabo esas propuestas de adaptación de las previsiones establecidas en el presente Código.
- Impulso de la puesta en marcha efectiva del Código a través de las acciones y medidas que sean necesarias.
- Proponer las modificaciones que sean precisas en el Código, elevándolas para su toma en consideración por el órgano competente.
- Resolver las consultas formuladas por las personas sujetas al ámbito de aplicación del Código, así como por cualquier otra instancia, en relación con la aplicación del citado instrumento.
- Recibir las quejas o denuncias, en su caso, sobre posibles incumplimientos de los valores, principios o conductas recogidos en el mismo y darles el trámite que proceda, siempre con plena garantía del trámite de audiencia de la persona interesada.
- Plantear recomendaciones a las personas sujetas al ámbito de aplicación del Código, así como a los departamentos y entidades, sobre el cumplimiento del mismo.
- Realizar un Informe Anual de Supervisión del Cumplimiento del Código.

d. La Comisión se reunirá, como mínimo, una vez al año, previa convocatoria realizada por la persona titular de la Secretaría por orden de la Presidencia.

e. Sin perjuicio de lo anterior, podrá celebrar cuantas reuniones extraordinarias se consideren necesarias en función de la naturaleza y urgencia de las cuestiones a tratar, pudiendo en este supuesto, celebrarse de forma presencial o mediante la utilización de medios telemáticos.

Anualmente, se procederá a la elaboración de un informe de supervisión del cumplimiento del Código de las personas sujetas al ámbito de aplicación. El Informe podrá contener Recomendaciones y será elevado a la Junta de Gobierno Local. Las conclusiones y recomendaciones del Informe serán públicas.

f. Las personas que integren la Comisión se obligan a guardar secreto sobre toda la información de la que hayan tenido conocimiento durante el ejercicio de sus funciones; en particular, sobre los hechos examinados, el contenido de las investigaciones y deliberaciones y las decisiones adoptadas, así como



dute adierazpen publiko edo pribaturik egingo arinago aipatutakoarekin lotuta eta batzorde honek eskuartean dituen gaien inguruan.

- g. Prozedurei buruzko azken erabakiak baino ez dira publiko egingo, interesatuei haien berri eman eta gero.

8. Durangoko Udaleko kargu politikoentzako genero berdintasun arloko jokabide eta jarrera onen kodeari atxikimendua.

- a. Zinegotzi kargua hartzerakoan, norbanakoen aukera izango da kode honetera atxikitzea.
- b. Kodera atxikiz gero, zinegotziek onartu egingo dute kargutik dimititu beharko dutela jarrera bat edo batzuk betetzen ez badituzte, kodean hala jasota dagoen kasuetan.

Gai-zerrendatik kanpo batzarrean urgentziaz beste gai bat lantzea onartu dute bertaratuek, ahobatez. Hortaz, Tokiko Gobernu batzordeak, aho batez erabaki du:

LEHENENGOA.- Honako diru-laguntza deialdi honetara aurkeztea: Hiri merkataritzaren lankidetzeta, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntzen programa - Hirigune 2017. Deialdia Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko Saillburuak 2018ko maiatzaren 31ko Aginduak egin eta arautu du.

Proiektua: Durangoko Alde Zaharrean jarduera komertzialik ez duten lokaletako hiri paisaia eta paisaia estetikoa hobetzea.
Zenbatekoa: 38.720,00€

ZORTZI.- ESKAERAK ETA ITAUNAK

Ez dira egin.

sobre los datos de carácter personal. Asimismo, no harán ninguna declaración pública o privada relacionada con lo anteriormente expresado y sobre el procedimiento en curso que se trate ante dicha Comisión.

- g. Únicamente podrán hacerse públicas las decisiones finales sobre el procedimiento ya notificadas a la persona o personas interesadas.

8. Adhesión al Código de conducta y buenas prácticas de los cargos públicos del ayuntamiento de Durango en materia de igualdad de género.

- a. La adhesión a este Código será potestativa e individualizada desde el momento de la designación o nombramiento del cargo de concejal/a.
- b. La adhesión conlleva asumir la obligación de presentar la dimisión en el cargo si se incurre en un supuesto en el que se prevé tal medida en caso de incumplimiento de alguna o algunas de las conductas establecidas en el presente Código.

Fuera del orden del día y previa aprobación de su urgencia por unanimidad de los presentes, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acuerda:


PRIMERO.- Acogerse a las ayudas contempladas en la Orden de 31 de mayo de 2018, del Consejero de Turismo, Comercio y Consumo, por la que se regula y convoca para el ejercicio 2017, el programa de ayudas destinadas a incentivar las estrategias zonales de Cooperación, Dinamización y Competitividad Comercial Urbana – Hirigune

Proyecto: Mejora del paisaje urbano y estético en locales sin actividad comercial en el Casco Histórico de Durango.
Importe: 38.720,00€

OCHO.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

No se formulan.





DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Tokiko Gobernu Batzak
Junta de Gobierno Local

Akta 2018ko Uztailaren 9a
Acta 9 de Julio de 2018

Gai-zerrendan jasotako gaiak landu ostean, eta 17:30 direnean, alkate-presidenteak amaitutzat eman du batzarra, eta akta jasotzeari ekin zaio; eta nik, udalbatzako idazkari nagusia naizen honek, fede ematen dut.

Y HABIENDO finalizado con los asuntos comprendidos en el Orden del Día, siendo las 17:30 horas, por la Alcaldesa-Presidenta se da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretario General de la Corporación, doy fe.